283. zk.
Bigarren aroa
Abuztuak 15
2016

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

EUSKAL JIRA 2016

Kirolak
Borja Estonba eta Olatz Zabala partaidetza bikaina Sellan

9. orrialdea

Argazkiak
Moskuko jaiak

13. orrialdea

3 Erreportajea Bidasoa Folk Jaialdia
4-7 Euskal Jira: Erreportajea argazkietan.
8 Kirolak Iñaki Salberria igerilariari elkarrizketa.
10 Caser
11 Haurren lanak Toki Alai HH.
12 Gazteen lanak Hirubide DBH-2
14 Gazte infor
15 Agenda

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780
CASER ANAKA

Caser RESIDENCIAL
GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak
Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169
CASER BETHARRAM

Argazki lehiaketa

Estibaliz Zubialde
Abenidako Zubia 100 urte bete ditu.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.
Tel: 693 828 099

Irun atzo Irun gaur

IUA: 38817

Jose Joaquin Tadeo Murgia kalea

Goiko argazkian Jose Joaquin Tadeo Murgia kalea ikus daiteke, 1978. urtean egin ziren etxebizitza berriekin. Salis hiribidea eta Legazpi kalea elkartzen diren tokitik Santiago kaleraino doa.

1972ko maiatzaren 21eko Osoko Bilkuran erabaki zuten izen hori jartzea, kaleen batzordearean proposamenez.

Joaquin Tadeo Murgia eta Azkonobieta Irunen jaio zen 1759an. Lehen musika ikasketak bere herrian egin ondoren, Italiara joan zen, kontrapuntuaren inguruan gehiago ikastera. Itzuleran, eta 20 urte pasatxo zituela, 1785ean Iruñeko Katedraleko organo jotzaile plazarako aurkeztu zuen bere burua, baina ez zuen lortu. 1788an ordea, lehia handiko oposizioa egin ondoren, Malagako Katedraleko plaza lortu zuen, eta han bizi izan zen, 1836an hil zen arte.

Murgia bizi zela, organo jotzaile gisa ospe handiagoa izan zuen, konpositore bezala baino. Organoan birtuosoa, eta "fugado"aren interpretari bikaina, erlijio kutsuko hainbat obra konposatu zituen, himnoak, salmoak eta moteteak, adibidez.

Aipamen berezia merezi du "La Música como uno de los medios más eficaces para excitar el patriotismo y el valor" liburuskak, 1809an Malagan argitaratua eta Napoleonen inbasioaren kontrakoa dena.

Bere lanik gehienak Malagako Katedraleko Artxiboan aurki daitezke. Beste batzuk sakabanaturik daude Madrilgo Errege Jauregiko Artxiboan, Arantzazuko Antzinako Musika Artxiboan, etab.

Iturria: José Monje.

Irungo kaleen izenak.

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Kurdistango eta Kanariar uharteetako doinuak entzun ahal izango dira Urdanibian

Abuztuaren 21ean hartuko du Irunek Bidasoa Folk jaialdiko emanaldia

Folk-a izaten da abuztuaren bigarren erdiko soinu banda Txingudi badian. Munduko hamarnaka lekutako doinuak ekarri ditu jada Bidasoa Folk festibalak Hondarribiko, Irungo eta Hendaiako kale eta plazetara. Aurtengo edizioak aurrekoen bidea jarraituko du. Eszenatoki irekietan izango dira emanaldiak, doan, eta talde eta doinu anitzak ezagutzeko aukera emango dute. Kontzertuen ordutegia aurreratu dute oraingoan, familiak erakartzeko intentzioarekin.

Gani Mirzo

Joao Afonso

Benito Cabrera

Hinka

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak zazpi kontzertu antolatu ditu Bidasoa Folk festibalaren XVI.ediziorako. Hondarribian hasiko da, abuztuaren 19an, Arma Plazan. Hinka hirukotea ariko da lehenengo, 20:30etatik aurrera. Lapurdiko kostaldean sortutako taldea da. Dantzarekin lotutako musika tradizionala, doinu modernoagoekin uztartzen dute. “Inspirazio tradizionaleko talde modernoa da”, argitu dute jaialdiaren antolatzaileek. Oihartzun handiko talde batek hartuko du lapurtarren lekukoa: Altan irlandarrak. Azken urteotan, eta musika tradizionalaren esparruan, beti ere, nazioartean arrakasta gehien izan duen taldea dela baieztatu dute antolatzaileek. Milioi bat disko baino gehiago saldu dute, hamabi urteko epean.

Hurrengo egunean, abuztuaren 22an, Hendaiako Gaztelu Zahar frontoian izango da hitzordua, 19:00etatik aurrera. Bertara gerturatzen direnek emanaldi hirukoitzarekin gozatuko dute. Hendaian ariko diren hiru taldeak lotuko dituen haria, Portugalgo musika izango da. Hasteko, Aqui Há Baile taldea ariko da. PédeXumbo elkartearen eskutik sortu zen 2011n, Portugal hegoaldeko Alentejo erregioko dantza errepertorioari bultzada emateko asmoz. Amaieran, Joao Afonsok eskainiko du kontzertua, bere taldearekin. Mozambiquen jaio ze arren, txikitatik Portugalen bizi izan da. Gainera, Portugalgo musika tradizionaleko abeslaria du osaba, Zeca Afonso. Tartean, Fran Lasuen eibartarra eta José Luis Canal bilbotarra ariko dira. Tangoarekin edo jazz-arekin batera, fado portugaldarra ere badago euskal bikotearen errepertorioan.

Talde exotikoena, Irunen

Urdanibia plaza izango da Irungo eszenatokia, eta abuztuaren 22an hartuko du emanaldia, igandearekin, 20:00etatik aurrera. Gani Mirzo musikari kurduak eskainiko du lehen kontzertua. Turkia, Siria, Iran eta Irak artean dagoen lurraldea da Kurdistan, eta estaturik ez duen herria bizi da bertan. Gani Mirzo laud eta konposizio irakasle izan da Sirian. Gaur egun, musika orientaleko departamenduko burua da Bartzelonako Musika Eskolan. Estilo kurdua, orientala eta flamenkoa nahasten ditu bere konposizioetan. Mirzoren ondotik, Benito Cabrerak joko du Urdanibia plazan. Musikari kanariarra da, eta timple instrumentu tradizionala jotzen du. Musika klasikoarekin eta pop-arekin uztartzen du, dena den.

Kontzertuak eskainiko dituzten zazpi talde edo artisten maila nabarmendu dute antolatzaileek. “Kalitate handiko egitaraua du Bidasoa Folk-ek”, adierazi du Richard Irazusta Hendaiako hautetsiak. Munduko musika ezberdinen bidez, Txingudiko aniztasun kulturalaren balioa azpimarratzea da Bidasoa Folk-en helburua. Bide batez, badiako hiru herrien arteko lankidetzaren adibide egokia dela aipatu du Miguel Ángel Páez Irungo alkateordeak. Hautatutako data kontuan hartuta, agerikoa da udako bisitariei begira prestatutako ekimena ere badela. 3.000 ikuslekoa izaten da batez bestekoa, azken edizioetan.

1

1. Idiek garraiatutako gurdiak erabiltzen dira Euskal Jirako desfilean.
2. “Jostunaren etxea” irudikatu zuen Kemen Dantza Taldeak.

2

BAKAILAOA DASTA EZAZU

RJ BACALAO
bacalaos SANTYMAR
la barajilla bacalaos
Eguillor Bacalaos

1. Santiagoko Auzo Elkarteak Santiagotarrak K.E.ko bizilagunak gogoratu zituen, haien urrezko ezteietan.
2. Anaka 1881 Kultur Elkarteak gabarrari baten lana irudikatu zuen.

1

2

T & T Hizkuntzak

Ingelesa 4 urtetik aurrea !!

- Klaseak taldeka eta pertsonalizatuak
- INGELESA, EUSKARA, FRANTSESA, ALEMANA, ITALIERA, ESPAINIERA
- Enpresentzako klaseak eta ikasleentzat alor guztietako laguntza klaseak
- Maila guztiak
-Tituluak eskuratzeko klaseak

Kale Nagusia, 27 - IRUN - 943 63 52 59
academiatyt@gmail.com

1

2

2

1. Meakako Auzo Elkarteak “Nekazarien etxea” prestatu zuen gurdian.
2. Behobiako Auzo Elkarteak “Tren txikito” zenaren mendeurrena ospatu zuen.

DOCTOR HOUSE
Etxekologo

MOTA GUZTIETAKO LAN ETA KONPONKETAK ETXETAN NAHIZ DENDETAN

- Arotzeria
- Margolanak
- Zaharberritze lanak
- Lorategiak
- Iturgintza
- Sarrailak
- Elektrizitatea
- Instalazio zein muntaketak
- Garbiketa bereziak eta abar

DAVID:
655 70 98 93

IÑAKI SALABERRIA, zeharkaldietan aritzen den igerilaria:

“Beharrezkoa da itsasoan entrenatzea”

Txikitan hasi zen igerian, anaiaren bideari segika. Aitak ere erreferente gisa balio zuen, triatloietan ibiltzen baitzen. “Gure etxean futbolak ez zuen arrakasta handirik”, onartu du Iñaki Salaberriak. Urte ederrak pasa zituen igerilekuan, baina hemezortzi urte bete zituenean, aurkikuntza ederra egin zuen. Udaran jokatzen diren zeharkaldiak ezagutu zituen, eta harrapatu egin zuten. Txingudiko Zeharkaldia irabazi zuen orduan, 2012an. Lau urte beranduago, laugarren izan da aurtengo edizioan, abuztuaren 6an. Bidasoa XXIek antolatzen du proba, eta Hondarribian izaten da, Kai Zaharretik hondartzara. Salaberriak ez du podiumik lortu aurtengo udaran, baina itxaropentsu dabil hurrengo hitzorduak prestatzen.

Txingudiko Zeharkaldian hamar segundoko tartean sartu zineten lehenengo lau sailkatuak. Horren lehiatuak izaten al dira lasterketa guztiak?

Bai, azken aldian, zeharkaldiek joera hori hartu dute. Gero eta maila handiagoa dago, eta parekatuta egoten dira igerilari asko. Hori dela eta, irteerak konplikatuak izaten dira, kolpe pila bat jasotzen baitira. Niri ez zait lasterketaren buruan irtetea gustatzen.

Lehenengo tokian kokatu zinen lasterketaren erdian. Ezin izan zenion erritmoari eutsi?

Hondarribiko espigoira iristerakoan, multzoko lehenengoak pixka bat desbideratu ziren. Nik norabide hobea hartu nuen, eta lehenengo postuan jarri nintzen. Hamar segundoko abantaila hartu nuen, baina ez nuen nire burua alde horri eusteko gai ikusten. Horregatik, erritmoa jaitsi nuen, berriro taldean sartzeko. Hondartzara seigarren tokian iritsi nintzen, eta zutitu ondorengo azken korrikaldian, bi aurkari aurreratu nituen. Beti saiatzen naiz azken ahalegin horretarako indar pixka bat gordetzen, jende asko leher eginda iristen baita.

Astebete lehenago, Getaria-Zarautz Zeharkaldian, seigarren izan zinen. Baina podiumetik gertu gelditu zinen, orduan ere.

Bai, lehen sailkatuengandik oso hurbil ibili nintzen, eta pozik amaitu nuen emandako mailarekin. Normalean, neguko sasoia baliatzen dut, udako zeharkaldietan ondo aritzeko. Aurten, ordea, ezin izan dut horrenbeste ibili igerilekuan. Ondorioz, ez naiz horren indartsu iritsi lehen zeharkaldietara. Dena den, udak aurrera egin ahala hobetuz ari naiz, eta azken zeharkaldietarako ilusioa dut oraindik.

Nolatan espezializatu zara zeharkaldietan?

Zortzi urte nituela sartu nintzen klubean, eta oso ondo pasa nuen igerilekuko lehiaketa nagusietan ibili nintzen garaian. Lagun asko egin nituen, bidaiatu nuen, Espainiako Txapelketetan parte hartu nuen etab. Unibertsitatean hastera nindoanean, ordea, banekien ez nuela entrenamendu maila berdinari eusteko aukerarik izango. Uda horretan zeharkaldiekin probatu nuen, eta emaitza onak lortu nituen. Hortik aurrera, igerilekua sasoia hartzeko baliatu izan dut, gero, udaran, zeharkaldietan zentratzeko.

> “Beti saiatzen naiz azken ahaleginerako indar pixka bat gordetzen”

Zergatik nahiago dituzu zeharkaldiak?

Ikaragarri gustatzen zaizkit. Bestelako faktore batzuk sartzen dira jokoan: marea, korronteak, lasterketako erritmoa, egon daitezkeen erasoak etab. Estrategia ere kontuan hartu behar da. Lasterketa luzeak dira, eta era ezberdinetan kudeatu daitezke. 100 metroko proba batean ez dago misteriorik. Dena eman beharra dago, hasieratik bukaerara. Azkarrenak irabazten du, eta normalean, lasterketa hasi aurretik igerilarien postuak igartzea ez da zaila izaten. Zeharkaldietan ez da hori gertatzen.

Itsasoan igeri egiteak ez du zer ikusirik. Zaila iruditu zitzaizun hasieran?

Bai, lehen zeharkaldiak egin nituenean, ez nuen ideiarik. Batzuetan nik bide bat hartzen nuen, eta gainerako guztiek beste bat. Denborarekin konturatu nintzen zer nolako eragina duen kokapenak.

> “Lasterketa luzeak dira, eta era ezberdinetan kudeatu daitezke”

Hori esperientziak konpontzen du, eta horregatik, beharrezkoa da itsasoan entrenatzea. Serieak igerilekuan egiten ditut, baina gainerakoa, itsasoan. Arazoa da Hondarribian ura oso barea dela. Hori dela eta, batzuetan Donostiara joaten naiz, irlari buelta ematera etab.

Igerilekuan ere distantzia luzeetan ibiltzen zinen?

Txikitan distantzia luzeekin probatu nuen arren, beranduago abiadurakoetan hasi nintzen. Aitortu behar dut igerilekuko proba luzeetan ez nintzela ondo moldatzen. Hala ere, alde handia dago. 1.500 metroko proban, adibidez, erritmo handi bati eutsi behar diozu denbora luzez. Zeharkaldietan, guztira distantzia bikoitza egin behar bada ere, erritmo aldaketa gehiago egoten dira: erasoak, etenak etab. Ondo moldatzen naiz guzti hori kudeatzen.

Sellan presente egon da Irun

Podiumera igo dira Olatz Zabala eta Borja Estomba
Santiagotarrak K.E.rekin senidetu da Asturiasko proba prestigiotsua

Piraguismoari estu lotutako ibaia da Sella asturiarra. Ehunka palista biltzen ditu urtero, abuztuaren hasieran, Arriondas eta Ribadesella herrien artean jokatzen den nazioarteko jaitsieran. Sona handia du estatuan, eta Interes Turistikoko Nazioarteko Festa izendapena dauka. Kirol arloan ere, prestigio ikaragarria du piraguistentzat. Irun hiriak tradizio handia du piraguismoan, eta askotan izan dira herritarrak Sellako podiumean. Baina aurten, inoiz baino oihartzun handiagoa izan du Irunek Sellan. Alde batetik, Sellako Nazioarteko Jaitsieraren eta Santiagotarrak Kirol Elkartearen arteko senidetzea dela eta. Bestetik, bi irundar izan direlako proba nagusietako podiumetan: Olatz Zabalak K2ko proba irabazi du, eta Borja Estomba bigarren izan da K1ean.

Sellako Nazioarteko Jaitsierak 80.edizioa bete du aurten. Proba antolatzen duen batzordeak Santiagotarrak Kirol Elkartearekin senidetzea erabaki du, Irungo klubak mende erdia bete duen urtean. Abuztuaren 5ean, Sellako hitzordu nagusiaren bezperan, Olatz Zabala Santiagotarrak K.E.ko presidenteak Bidasoa ibaiko ura isuri zuen Asturiasko ibaian. Kontrakoa egin zuten Sellako probaren arduradunek, uztailaren 23an, Bidasoako Nazioarteko Jaitsieraren 50.edizioaren aurreko egunean. “Sentimendu aldetik oso polita izan da”, onartu du Olatz Zabalak. Senidetze ekimen horrek, jada, berezi egin zuen Sellako 2016ko edizioa Zabalarentzat. Hurrengo egunean, ordea, erabat borobildu zuen, kirol arloan lortutako arrakastari esker.

> “Garaipenik handiena da Sellan irabaztea”
>
> **Olatz Zabala, Santiagotarrak K.E.ko presidentea eta piraguista**

Aurreko urteetan bigarren eta hirugarren izan ondoren, K2ko proba irabaztea lortu zuen Zabalak, Aurora Figueras katalunia-rrarekin batera. Selekzioko taldekideak dira, eta iaz elkartu ziren, lehen aldiz, Sella lehiatzeko. Proba konplikatua izan zuten aurten, arazoak izan baitzituzten lasterketako lehen txanpan. Piraguatik atera behar izan zuten behin baino gehiagotan. Atzetik aurrera egin zuten gero lasterketa, eta bost kilometro falta zirela lortu zuten lehenengo postuan kokatzea. “Orain edo inoiz ez” pentsatu zuela azaldu du Zabalak. 1:25.22ko denbora behar izan zuten 20 kilometroko ibilbidea osatzeko. Txikitako ametsa bete zuela aitortu du Santiagotarrak K.E.ko presidenteak: “Sekulako ilusioa sentitu nuen iristerakoan, negar batean egon nintzen. Guretzat, garaipenik handiena da Sellan irabaztea”.

> “Jendeak egiten du proba berezi”
>
> **Borja Estomba, Oviedo Kayak taldeko piraguista**

Gizonezkoen K1eko proban, beste irundar bat igo zen podiumera. Oviedo Kayak taldean aritzen den Borja Estomba bigarren izan zen, bigarren aldiz jarraian. Hamabost segundoko tartea atera zion aurten Kiko Vega asturiarrak. “Haize handia zebilen, eta oso lasterketa gogorra izan zen, hasieratik bukaerara”, adierazi du Borja Estombak. Eskarmentua du jada, irundarrak, piraguismoan. 2009an Europako txapeldun izan zen 23 urtez azpiko mailan. Espainiako urrezko dominak ere baditu etxean. Momentu jakin batetik aurrera, ordea, entrenamenduen kopurua eta exijentzia maila murriztea erabaki zuen. “Konturatu nintzen piraguismotik bizitzea ezinezkoa izango zela, eta beste ogibide bat bilatu nuen”.

Irakaslea da gaur egun, eta piraguan ibiltzen jarraitzen badu ere, bestelako helburuak jartzen ditu orain. Sellako jaitsiera da horietako bat. Udaran jokatzen denez, ondo entrenatzeko eta sasoian iristeko aukera izaten du. Bereziki Sella prestatzeko erabaki zuen Borja Estombak Oviedoko taldera joatea. “Noizean behin bertan entrenatzeko aukera eta diru-laguntza eskaini zizkidaten”. Askotan jaitsi du Sella ibaia, ondo ezagutzen du, eta nabari da bere emaitzetan. Koska bakarra falta zaio jada, podiumeko lehen tokira igotzeko.

Proba berdingabea

Proba berezia da Sellako Nazioarteko Jaitsiera Estombarentzat eta Zabalarentzat. Lasterketaren inguruan bizitzen den giroa azpimarratu dute biek. Eguerdiko hamabietan ematen dute irteera, pregoiaren ondoren. Dionisio de la Huerta probaren sortzaileak idatzitako bertso batzuk irakurtzen dituzte, eta ikusleek Asturiasko ereserkia abesten dute ondoren. Piraguistak lehorrean egoten dira, zutik, eta palak lotuta izaten dituzte. “Oso urduri egoten gara normalean. Jendea oihuka entzuten dugu, abesten, eta oso une hunkigarria izaten da”.

Semaforoak kolore berdea hartzen duenean askatzen dizkiete palak, eta korrika irteten dira, piragua hartu eta uretan sartzeko. Hortik aurrera, Ribadesellara arte, milaka zaleren babesa jasotzen dute. “Jendeak egiten du proba berezi. Ibilbide osoan zehar animatzen eta bultzatzen zaituzte”, baieztatu du Estombak. Maila handiko senidea du, beraz, Santiagotarrak Kirol Elkarteak. 50.urteurrenari distira eman dion osagaietako bat izan da Sellarekin harremana estutzea. Baina gehiago ere izan dira, Bidasoako Nazioarteko Jaitsieraren urrezko ezteiak, adibidez. Probaren antolaketari lotuta jaio zen Santiagotarrak, eta aurtengo edizio berezian, Borja Estomba eta Olatz Zabala irabazle izan dira K1eko proba nagusietan. “Oroitzapen ederra izango da, betirako gordeko dudana”, aipatu du Zabalak. 2016ko udara, orokorrean, nekez ahaztuko du.

Lehen urtea bete dute Caser Betharramgo apartamentu tutelatuek

Apartamentu tutelatuak inauguratu zituzten iaz Caser Betharram egoitzan. Esperientzia positiboa izan da orain arte, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin osasun arazo mentalak dituztenentzat hitzartutako sei plaza bete dira. Beste hamarrak, 60 urtetik gora eduki arren, nahikoa autonomia duten adinekoei zuzenduak dira, eta horietatik zazpi bete dira.

Bestalde, egoiliar berriak eta haien familiak pozarren daude Caser Betharramgo apartamentu tutelatuekin. Bertan, bizimodu autonomoa izan dezakete, esperientzia handiko zerbitzu bat ondoan dutela jakiteak ematen duen segurtasunarekin.

- 16 etxebizitza daude guztira alokairuan. Horietatik sei, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin kontzertatuak dira, osasun mentaleko arazoak dituen jendearentzat prestatuak. Beste hamarrak autonomia nahikoa duten edadetuei zuzenduta daude.

- 40 metro karratuko zabalera daukate, eta oso argitsuak dira.

- Hilabeteko 600 euro balio dute (ura eta elektrizitatea barne).

- Beste zerbitzu batzuk gehitu daitezke: garbiketa, bazkariak, etab.

- Eraikina Caser Betharramen ondoan dago, eta barrutik erabat berritu dute.

- 3 solairu dira, eta 5 etxebizitza daude solairu bakoitzean.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

CASER ANAKA

Caser RESIDENCIAL

GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

CASER BETHARRAM

Toki Alai HH

Hirubide DBH-2

Izena
Patata papoiak (lau lagunentzako)

Osagaiak:

9-10 patata
Oliba olioa
Gatza
Hirugiharra
Ogi birrindua
3-4 arrautza
perrexila

Prestatzeko era:

Lehenbiziko patatak sartzen dira eltze batean urarekin, egosten dira 60-90 minutuz (patatak bigundu arte), ondoren patatak utzi behar ditugu 30 minutu gutxigora behera hozten. Hori egin eta gero, patatak zuritzen dira eta zapaltzen edo txikitzen dira masa bat geratu arte.
Beste aldetik arrautzak irabiatzen ditugu eta gatza botatzen diegu, ondoren patatarekin nahastu behar ditugu eta ogi birrindua botatzen dugu.
Hirugiharra frijitzen dugu eta botatzen dugu nahasketara. Hori egin ondoren oliba olioa zartagin baten jartzen dugu eta nahasketa koilarakadaka botatzen dugu zartaginera frijitzeko.

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

S.R.A. andereari jasoa (1959-V-4). Bertso berri hauek gustiz famatuak izan ziren Irunen, Kateako auzoan bereziki, duela 80 urte. (El Bidasoa, 1959-VII-4)

Atta-semiak aritzen giñan

Atta-semiak aitzen giñan
uda partian labrantzan
andria berriz ganbaratikan
tabernarako arrantzean.
Egun batian eskalleran goitik
beko oñeraño joantzan,
lendabiziko pentsatu nuen
eltze zarren bat ote zan.

Ari nintzela ari nintzela
andria ezin jasorik,
esan ziraten erana dago
ez egiñ orri kasorik:
arrall aparta egiña zagon
ezurrak zauzkan osorik,
galdetu ziran, flakua nago
ez al da ardo goxorik?

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

Hogeita hamar jardueratik gora izan dira Moskuko jaietan

Abuztuaren 11tik 15era antolatu dituzte aurten Moskuko Jaiak, Urdanibia plazaren inguruan. Ostegunetik astelehenera, egitarau anitza eta zabala prestatu du Moskuko Jai Batzordeak, hogeita hamar jarduera baino gehiagorekin: kontzertuak, dantza eta antzerki emanaldiak, bertso saioak, kirol lehiaketak, gastronomikoak, herri bazkariak, haur jolasak eta tailerrak, azoka etab. Larunbatean bildu zen jende gehien, jai giroko herri bazkarian, ondorengo poteoan eta kontzertuetan.

Alde Zaharra-San Juan Auzo Elkarteak, bere aldetik, Ama Xantalen egunaren inguruan beste zenbait hitzordu antolatu ditu. Abuztuaren 18an, Ama Xantalen egunean, ermita zabalik egongo da 16:00etatik 20:00etara, nahi duenak bisitatu ahal izan dezan. Abuztuaren 20an, larunbatarekin, meza, Irun Hiria Musika Bandaren kontzertua eta herri bazkaria egingo dituzte. Bazkaria Txalaka jatetxean izango da, eta tiketak bertan eros daitezke, 26 euroren truke. Bazkariaren ondoren, Txapelaundi Saria jasoko du Inma Ariztia Calzados Pombarreko arduradunak, auzoaren eta bizilagunaren alde egindako lanagatik.

EUROPATIK MUGI ZAITEZ !!!!
"Atzerrira bidaiatu" aplikazio mugikorra. Zein da abiadura-muga Hungarian? Derrigorrezkoa al da kaskoa bizikletan ibiltzeko Suedian?... Doako aplikazio honetan Europako bide segurtasuneko arau nagusiak aurkituko dituzu, eta joko dibertigarri batzuk ere bai.

Irten aurretik deskargatzen baduzu, ez dizkizute kobratuko ibiltaritzako tarifak.

Nola lortu?
http://ec.europa.eu/transport/road_safety/going_abroad/index_es.htm#

INGELESEKO ETA FRANTSESEKO IKASTAROAK, DIRUZ LAGUNDUAK!!!!
Hizkuntza ikastaroak: ingelesa eta frantsesa %100eko diru-laguntzarekin. Ordutegi eta maila desberdinak eskaintzen dira.

Non? Irunen eta Donostian.

Hasiera? Irailean.

Antolatzailea: CEI Irun - Leticia (943 666 012 lgraner@grupocei.net) eta CEI Donostia: Ana (943 431 253 -gestioncursos@grupocei.net).

Prezioa: Doan.

Izena emateko eta informazioa jasotzeko?
http://www.irun.org/enlaces/00033778.pdf.

EUSKO JAURLARITZAKO BEKAK, 2016-2017 IKASTURTEA. UNIBERTSITATEKO IKASLEAK
Eusko Jaurlaritzak zenbait beka ematen ditu.

1. Unibertsitate mailako eta goi-mailako **beste ikasketa batzuk egiteko bekak**. 2016-2017 ikasturtea.

Epea: 2016/09/30.

Informazio gehiago hemen: http://www.hezkuntza.ejgv.eus-kadi.eus/r43-5552/eu/contenidos/informacion/dib2/eu_2033/becas_universitarias_e.html

2. **Bikaintasun akademikoko bekak**, etekin handiko unibertsitate-ikasleak aintzatesteko eta saritzeko.

Epea: 2016/09/30 (2016/10/15 EAEkotik kanpoko ikastegietan ikasketak egiten dituzten ikasleentzat).

Informazio gehiago hemen: http://www.hezkuntza.ejgv.eus-kadi.eus/r43-5552/eu/contenidos/informacion/dib2/eu_2033/excelencia_academica.html

3. Beren **ezaugarri fisikoak edo psikikoak** direla-eta, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen **garraio-gastuak** ordaintzeko diru-laguntzak, unibertsitate-ikasketak edo goi-mailako beste ikasketa batzuk Euskal Autonomia Erkidegoan egiten badituzte.

Epea: 2016/09/30

Informazio gehiago hemen: www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2493/eu/contenidos/informacion/dib2/eu_2033/becas_trans_discapacitados_e.html

4. Ikasiker **lankidetza bekak** ikerketa-gaietan hasi nahi duten unibertsitateko ikasleentzat (2016ko irailaren 1etik 2017ko abuztuaren 31ra).
Epea: 2016/09/30.

Informazio gehiago hemen: http://www.hezkuntza.ejgv.eus-kadi.eus/r43-5552/eu/contenidos/informacion/dib2/eu_2033/becas_ikasiker_colaboracion_e.html

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

IGAZTE: ZURETZAKO BERRITZEN GARA...

Egunean egon nahi al duzu enplegu eskaintzez, ikastaroez, Europako mugikortasunez, bekez, hezkuntzaz?

Izan zaitez IGazte buletineko harpide. Galde iezaguzu!

Interesatzen zaizun guztia, zure eskura

www.irun.org/igazte

sartu www.txingudionline.com-en eta ezagutu hobeto zure hiria
Erreala munduan, Kirolan, Desde nueve metros, #estapasando, La Bañatua, Ocurrió, Pásalo de cine, Historias del Bidasoa, Zaboga, Kirolan, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Ponte en forma

txingudionline.com
HENDAIA IRUN HONDARRIBIA
#estapasando, La Bañatua, Ocurrió, Pásalo de cine, Historias del Bidasoa, Zaboga, Kirolan, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Ponte en forma, Erreala munduan, Kirolan, Desde nueve metros
berriak, erreportajeak, historia, kirolak, hurbiltasuna, eztabaidak
Zaboga, Kirolan, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Ponte en forma, Erreala munduan, Kirolan, Desde nueve metros, #estapasando, La Bañatua, Ocurrió, Pásalo de cine, Historias del Bidasoa

Abuztuaren 21era arte

Zer? Amar no es un delito-"Nuestra lucha en Africa" argazki erakusketa.

Non? Laboral Kutxa aretoan, Colon Ibilbidea 13.

Ordua? Astelehenetik ostiralera, 18:00-21:00. Larunbatetan, igandeetan eta jai egunetan, 10:30-13:30.

Prezioa: doan.

Irailaren 7ra arte

Zer? Maria Elena de Arizmendiri, Jose Antonio Loidiri eta Manuel Saniz de Vicuñari omenaldia (argazki erakusketa).

Non? CBA kultur gunean.

Ordua?
Abuztuan:
Astelehena, asteazkena eta ostirala: 08:00-14:00; asteartea eta osteguna: 08:00-20:00.

Iraila:
Irailaren 1etik 11ra: astelehenetik ostiralera: 08:00-14:00; larunbata: 09:00-13:00.

Prezioa? Doan.

Urriaren 16ra arte

Zer? Revisitando a Zumeta erakusketa.

Non? Menchu Gal aretoan (Urdanibia plazan).

Ordua? Astelehenetik larunbatera 18:00-21:00. Igandeetan eta jai egunetan 11:30-13:30.

Prezioa? Doako sarrera

Abuztuak 18

Zer? Santa Elena museora bisita, Ama Xantalen eguna dela eta.

Non? Santa Elena ermita.

Ordua? 16:00-20:00.

Prezioa: Doako sarrera.

Abuztuak 19

Zer? GiraBira ekimenaren bigarren jardunaldia (Eskualdeko film laburrak).

Non? Alai Txoko parkean.

Ordua? 20:00-24:00.

Prezioa: Doako sarrera.

Abuztuak 20

Zer? Ama Xantalen-Meza, kontzertua eta bazkaria.

Non? Alde Zaharrean.

Prezioa: 26 euro bazkariak.

Informazio gehiago: 13.orrialdean.

Abuztuak 21

Zer? Bidasoa Folk jaialdiko emanaldia: Gani Mirzo eta Benito Cabrera.

Non? Urdanibia plazan.

Ordua? 20:00.

Prezioa: Doan.

Informazio gehiago: 3.orrialdean.

GiRA BiRA

www.girabira.net

Abuztuak 27

Zer? IX.Bilduma Azoka.

Non? Zabaltza plazan.

Ordua? 10:00-21:00.

EKAR teleinmobiliaria
Nafarroa ibilbidea, 7 - IRUN ☎ +34 669 408 705
info@ekarinmobiliaria.com www.ekarinmobiliaria.com

PRIMERAKO AUKERAK

Pisua salgai Irun Kolon
Azalera 151 m², 5 gela, bainugela 1, 2 komun, egongela, sukaldea, 3 balkoi, hegoa deiturik, eguzkitsua.
Ref: 04472 195.000 €

Pisua salgai Hendaia
Azalera 85 m², 2 gela bikoitz, bainugela, komuna, egongela, sukaldea, balkoia, trastelekua, berogailu elektrikoa, hegoaldeiturik, eguzkitsua eta bista politekin. Aparkalekua barne.
Ref: 03511 165.000 €

Pisua salgai Irun Azken-Portu
Azalera 85 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, balkoia, igogailua, berokuntza eta bista politekin.
Ref: 04457 179.000 €

Pisua salgai Irun Larrehaundi
Azalera 77 m², 2 gela, bainugela 1, egongela, sukaldea, balkoia, trastelekua, berokuntza. Etxekuntza eta pisua erreformatuak.
Ref: 04464 125.000 €

Pisua salgai Irun Belaskoenean
Azalera 70 m², 3 gela, bainugela, egongela sukaldearekin, 3 balkoi, trastelekua, igogailua, berokuntza, hegoaldeiturik eta oso eguzkitsua.
Ref: 04493 145.000 €

Pisua salgai Irun Kolon
Azalera 70 m², 2 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, berokuntza, igogailua, trastelekua eta 41 m²ko terraza.
Ref: 03592 230.000 €

Pisua salgai Irun San Miguel
Azalera 103 m², 3 gela, bainugela, komuna, egongela, sukaldea, balkoia, gas berokuntza, igogailua, trastelekua, eguzkitsua eta bista politekin.
Ref: 04481 235.000 €

Pisua salgai Irun Alde-Zaharra
Azalera 60 m², gela 1, bainugela 1, egongela, sukaldea, berokuntza. Etxekuntza eta pisua erreformatuak. 2. pisua igogailurik gabe.
Ref: 04384 90.000 €

Jatetxea salgai Irun Olaberria Labeko Etxea
Azalera 770 m², aparkalekua, terraza. Jatetxea aparte, bi etxebizitza ditu, bakoitzak 70 m²koak.
Ref: 04250 Kontsultatu

"ALQUILER PREMIUM" ALOKATU PISUAK ETA LOKALAK GUREKIN

Amona Kattalin Txoko

Amona Kattalin Txoko jatetxea Meaka auzoan dago. Errazta-suna aparkatzeko, zerbitzu arretatsua, kalitatea, eta prezio ona.

Tel: 843 98 57 06
Meaka Auzoa, 9, Irun.